



Klimari buruzko 2015eko Pariseko konferentziaren inguruko Adierazpen Instituzionala

Parisen Klimari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparruaren Aldeen Konferentzia –COP21– egitear dira, akordio global eta lotesle bat lortzeko helburuz. Hain zuzen, karbono gutxi kontsumitzen duten eta klima-aldaketaren agerpen ugari aurre egiteko prest dauden gizarte eta ekonomietarako trantsizioaren oinarriak ezartzea da xedea. Bada, Eusko Jaurlaritzak zera adierazi nahi du konferentziaren haritik:

- 1.- Berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko eta klima aldaketaren eraginei egokitzeko ahaleginak areagotzeko premia onartzen du, baita horretarako erantzunkidetasunaren printzipioan oinarritu beharra ere.
- 2.- Oinarritzat 2005 urtea harturik 2030 urterako berotegi-efektuko gasen isuriak % 40 eta 2050 urterako % 80 murrizteko konpromisoa hartzen du, Europar Batasunak hartutako eta Klima Aldaketaren Euskal Estrategian jasotako konpromisoekin bat.
- 3.- Herrialde, eskualde eta hirien arteko lankidetzak eta elkarlana sustatzen du, klimaren gaineko nazioarteko ekimen nagusietan aktiboki parte hartzen.
- 4.- Garraio jasangarria, energia berriztagarrien garapena, energiaren aurrezpena eta lurraldearen erresilientzia bultzatzen ditu.
- 5.- Karbono baxuko ekonomia sustatzen du, berrikuntzaren dinamizatzaile gisa, garapen jasangarri eta lehiakorreko eredu berri baten barruan.
- 6.- Parisen egingo den Klimari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparruaren Aldeen Konferentzian –COP21– nazioarteko adostasuna lortzeko nahia adierazten du; hartara, gizarteari isuri gutxiko ekonomia bat, klima-aldaketaren eraginetara egokitua, zehazteko aukera emateko.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 1ean